

# Bageraren buletina

2019 urria

## Kaixo bagerakide!

Urriko buletinaren bidez, hilabete honetan eskuartean ditugun eginkizun nagusien berri eman nahi dizugu.

*gustura egingo nuke zurekin...  
lagunduko didazu?*



egin zaitez  
**mintzalagun**

2019/2020 ikasturtean mintzalagunean izena emateko epea **urriaren 1etik 18ra** izango da. Izena emateko [www.bagera.eus](http://www.bagera.eus) bidez edo bulegora etorrita egin daiteke. Azken urteetan mintzapraktika behar dutenen partaide kopuruak gora egin du, hori dela eta, laguntzaileak behar ditugu, animatuz gero edo inguruan interesa izan dezakeen norbait ezagutuz gero, jarri gurekin harremanetan. Taldeak azaroan jarriko dira martxan eta asteen behin, ekaina bitartean, ordu beteko saioa norberak nahi duen ordutegian.

## Nerabeen Euskaraldia Zubiri-Manteo BHI

Zubiri-Manteoko Nerabeen Euskaraldiaren proba pilotua jarri dugu martxan *Ebete* hizkuntza-zerbitzuarekin elkarlanean. Sentsibilizazio saioak egiten ari gara ikasleekin eta ekimen zehatza 2019ko azaro eta abendu artean burutuko da. Ikasleen artean euskararen erabilera indartzea da egitasmo honen helburua.

## Zineforuma

Bagerako Zine Foruma jarriko dugu martxan. Saioak hilean behin izango dira eta jatorrizko hizkuntzan euskarazko azpitoluekin, euskaraz sortu edo euskarara itzulitako pelikulak eskainiko ditugu eta ondoren solasaldia izango da. Lehenengoa **urriaren 15ean** eskainiko dugu, arratsaldeko 18:30ean Koldo Mitxelena: "Udako amodioa" frantsesez euskarazko azpitoluekin.

## Hitano taldeak

*Hikalaguna* egitasmoa jarri nahi du martxan Bagerak. Asteen behin bikote edo hirukoteak antolatu nahi ditugu hika erabiltzen trebatzeko. Dagoeneko erabiltzen baduzu, oinarritxo bat baduzu edo ikasi nahi baduzu, urriaren 15era arte izena eman behar da Bageran. Taldetxoak osatzeko bilera bat egingo dugu Bageran **urriaren 24an**, 19.00etan.

## Donostiako Euskaltzaleon Topaketak (DET)

*Aurrerapena... gorde data agendan*

Bagera Elkartek Donostiako Euskaltzaleon Topaketak antolatu ditu "*Entzun gaitezen, entzun gaitzaten*" izenburupean **azaroaren 16an**, San Telmo Museoa 9:30etik 13:30era.

Donostia hiri euskalduntzat hartzen bada ere, 2016an egindako neurketek argi adierazi ziguten euskararen erabilera beheranzko joeran doala eta herritar zein eragile askoren kezka nagusia da hiria jasaten ari den aldaketen baitan euskararen trataera zein den eta etorkizunean zein izango den. Izaera ezberdina duten hamarnaka eragile dabilta egoera hori aldatu nahian: erakunde publikoak, elkarteak, ikastetxeak, euskaltegiak, auzo batzordeak eta abar. 2018ko Euskaraldiak hiria astindu zuen eta norbanakoengan jarri zuen fokua.

Kezka partekatzen duten eta egoera aldatzeko gogoz daudenen artean eztabaida partekatu eta sare zabal eta anitzean lantzea da asmoa, izan entitate edo norbanako, parte hartze prozesu bat jarri nahi dugu martxan; batetik, partekatu, hausnartu, gogoetatu eta elkarrizketak izateko espazioak eskaintzeko, eta bestetik, Donostiako euskaltzaleen mugimendua osatzeko oinarriak zeintzuk izan behar diren erabakitzeko.

## Auzoko

Ikasturte honetan ere, Auzoko programa jarriko dugu martxan bi auzotan urritik aurrera. Asteartetan, 17:00etan Amara Berrin, Auzo Elkartearen eta asteazkenetan 14:45etan Egiako Musika Eskolan.

Taldeak euskaraz dakitenekin (Auzotarrak) eta ez dakitenekin (Auzokideak) osatzen ditugu eta bi profilak beharrezkoak dira egitasmoa aurrera eraman ahal izateko. Horregatik animatzen zaituztegu Auzotar moduan egitasmoan parte hartzera.

## Helduentzako bertso-eskola

**Urriaren 2tik maiatzaren 27ra**, asteazkenetan 18:15etatik 19:15etara Bagera Elkartearen, bertsolaritza ikastaroa antolatu du Bagera Elkartek Bertsozaleen elkartearekin batera.

Bertan bertsolaritza eta bertso gintzaren atal ezberdinak landuko dira, saioen egituratik bat-bateko bertsolaritza, bertsoen kritikatik bertso paperetara, teoria praktikarekin uztartuz eta tarteka gonbidatu berezien laguntzarekin.

Ikasturte osorako matrikula 50€koa izango da. Izen ematea [bagera@bagera.eus](mailto:bagera@bagera.eus) helbidean edo 943005074 telefonoan.

## Elkarrizketa Filosofikoak

Ikasturteko lehen Elkarrizketa Filosofikoa **urriaren 7an** izango da ohi bezala Urrats euskaltegian ([Amezketarrak kalea, 12](#)) 19:00etatik 20:30era. Landuko den gaia: *Zer ez da filosofia?* Irakurgaiak: "Urrutikoetxearen aldeko agiria" eta "La filosofía y el ridículo".

## Mintzodromoa

**Urriaren 15ean** Mintzodromoa antolatu dugu San Telmo Museoan. Bi txanda egingo dira, lehena goizeko 10etan eta bigarrena 11etan. Parte hartzaileekin aritzeko laguntzaileak behar izaten ditugu, beraz, animatuz gero, txanda batean, bestean edo bitan jarri gurekin harremanetan.

## Erromeria

**Datorren urriaren 19an**, Bagera Elkartek, Udaleko Musika eta Dantza Eskolaren laguntzaz, euskal dantza tradizionalen inguruko erromeria antolatu du 18:30etatik aurrera Parte Zaharreko Plaza Berrian (konstituzio plazan). Jotzaileak: Donostiako Udaleko Txistulariak. Dinamizatzaileak: Jone Muniategiandikoetxea eta Klaudia Erentxun.



**Beñat Gaztelumendi**  
eta **Haizea Nuñez**



Moderatzailea: **Lander Arbelaitz**

## Bikografiak. Bi ibilbide elkarrizketan

Bi parte hartzaileen biografien errepasoa izango da saioaren ardatza. Bakoitzaren alde publiko/ezagunaz gain, beren bizitzaren inguruan solastea da ideia. Biografian hizkuntzekiko harremanak beren bizitzan izan duen bilakaerari arreta berezia eskainiko zaio. Anekdotak, gertaera xelebreak, bizipenak ... Elkarrizketa informal hauen bidez, hizkuntzak herritarren bizitza pertsonaletan eta eguneroko bizitzan duten isla jarri nahi dugu agerian. Oraingo gonbidatuak Haizea Nuñez (abokatua) eta Beñat Gaztelumendi (bertsolaria) izango dira. Gidari lanetan Lander Arbelaitz kazetaria arituko da **urriaren 17an**, 19:00etatik aurrera Tobacco Days liburudendan (Tabakalera).